



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Espediente zk.: 2017 IKTZ 0001
Azalpena: SANTIAGOMENDI ERMITAKO INGURUNE NATURALAREN ETA PAISAIAREN ANTOLAMENDURAKO PLAN BEREZIA

1152/2017 Dekretua, urriaren 27koa, Plan Berezia idatzi eta izapidetzeko laguntza-eta aholkularitza-teknikoaren lanak esleitzeari esleitzeari buruzkoa.

Ikusirik 2017ko irailaren 25eko 1040/2017 dekretuan, besteak beste, ebatzi zela Santiagomendi Ermitako Ingurune Naturalaren eta Paisaiaren Antolamendurako Plan Berezia idazteko eta espedientea izapidetzeko laguntza-eta aholkularitza-teknikoa emateko zerbitzu-kontratua publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez egitea.

Ikusirik lizitazio-iragarkia urriaren 3ko GAOn argitaratu zela, eta baita kontratatzailearen profilean (hots, web orrian).

Kontuan harturik eskaintzak aurkezteko epean enpresa bakar bat aurkeztu dela lizitaziora, hain zuzen, Araudi SLP; eta ordezeko udal-idazkariaren urriaren 20ko txostenean jasotzen den moduan, enpresak eskatzen ziren baldintza guztiak betetzen dituela, eta frogatu duela nahiko gaitasuna (bai ekonomiko-finantzieroa, bai teknikoa) duela.

Kontuan harturik 2017ko urriaren 27ko kontratazio mahaiak, besteak beste, espediente kontratazio honetako A eta B gutun-azalei buruz ordezeko idazkariak eta udal arkitekto teknikoak egindako txostenak aztertu eta ontzat eman ondoren, kontratazio-espediente honetarako ebazpen-proposamen hau egin duela:

“ Santiagomendi Ermitako Ingurune Naturalaren eta Paisaiaren Antolamendurako Plan Berezia idazteko eta espedientea izapidetzeko laguntza-eta aholkularitza-teknikoa emateko zerbitzu ARAUDI SLP enpresari esleitzea, 32.090,08 euroko (BEZa aparte) prezioan”

Kontuan harturik Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen eta Sektore publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateraginaren Bigarren xedapen gehigarria jarraiki, kontratu honen zenbatekoaren arabera, esleipena alkateari dagokiola, baina Astigarragako kasuan, 73/2017 Dekretuan, 62.000 eurotik beherako obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea eta ematea, Juan Martín Arregui Sagües kontrataziorako zinegotzi delegatuaren esku utzi dela.

XEDATZEN DUT



Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Lehena.- Santiagomendi Ermitako Ingurune Naturalaren eta Paisaiaren Antolamendurako Plan Berezia idazteko eta espedientea izapidetzeko laguntza-eta aholkularitza-teknikoa emateko zerbitzu ARAUDI SLP enpresari esleitzea, 32.090,08 euroko (BEZa aparte) prezioan”

Bigarrena.- Esleipendunak kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean 1.604,50 eurotako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Hirugarrena.- Esleipendunari jakinaraztea faktura elektronikoak eman eta bidaltzeko, efaktur izeneko fakturazio elektronikoko softwarea behar dela, doan eta lizentzia askearekin, eta faktura elektronikoki sinatu behar dela honako ziurtagiri hauetako baten bitartez: Izenpe, Camerfirma edo e-NAN.

Fakturak elektronikoak bildatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sarrera Puntu Orokorra erabiliko dela eta bide hauetako bat aukera litekeela:

Mezu elektronikoko baten bidez honako helbide honetara:
udal_fakturaelektronikoak@gipuzkoa.net

Honako webgune honen bitartez:

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HFAFacturaElectronicaWEB/services/FacturaElectronicaService>

Informazio gehiago lortzeko eta zehaztapen teknikoak kontsultatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarraian adierazitako webgunera jo daitekeela:

<https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/HACI/HFAPortalProveedorWEB/contratacionPublica.do?cambiarIdioma&idioma=E>

Astigarragan, 2017ko urriaren 27an.

Juan Martín Arregui Sagües
zinegotzi-delegatua